



UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak eta Beasaingo Udalak lankidetzaz hitzarmen bat izenpetu dute XXXVIII. edizioko bi uda ikastaro Beasainen egiteko

Igartza honela, zientzia, ezagutza, eztabaida eta jakindurirako erreferente biurtzeko helburuan pausoa eman du Beasaingo Udalak

Beasaingo Udalak Aitor Aldasoro alkatea buru dela eta Itziar Alkorta EHU/UPVko Uda Ikastaroen zuzendariak indarrak batu dituzte sinatutako hitzarmenaren bidez XXXVIII. edizioko bi Uda ikastaro Beasainen egiteko. Udalaren asmoa, Igartzako Monumentu Multzoa ezagutzaren erreferentzia bihurtzea da. Uda Ikastaroak erreferente bihurtu dira euskal gizartearen kultura programazioan, gizartearen desafioei buruz eztabaidatzeko topagune eta hauek Beasainen egiteko aukera eskertu dio alkateak Ikastaroen zuzendariari.

Itziar Alkorta Ikastaroen zuzendariak adierazi duenez, Uda Ikastaroen

Ibiltaria programaren helburuetako bat ikastaroak euskal geografia osora zabaltzea da, eztabaidak sortzen diren lekuetan aztertzeko gai bakoitza. Bi erakundeek elkarlana hitzarmenaren izenpetze ekitaldiaren bidez gauzatu dute Igartzako jauregian gaur goizean.

Honela bada, antolatu diren bi ikastaroak hauek izango dira:

- **“Fabrikazio Gehigarriaren eragina industrian” (ekainak 27)**

Iñaki Zabalo Goiherriko Herrien Ekintza Fundazioko zuzendari nagusiaren gidaritzapean, ikastaroak aztergai izango du fabrikazio gehigarriak industrian duen inpaktua. Teknologia hauek gero eta aplikazio handiago dute industria sektorean eta negozio ereduak, prozesuak, makinei eta profesionalei eragiten diete. Fabrikazio gehigarriak aukera ematen du produktu berri eta eraginkorrak sortzeko, pertsonalizatuak eta errespetutsuak ingurumenarekin. Ondorioz, industria arloko enpresa asko prozesu hauek ezartzen ari dira. Ikastaroan, teknologia gehigarrien inpaktua aztertzeaz gainera, gaur egungo prozesuak deskribatu eta diseinu aukerak zehaztuko dira. Halaber, industrian arrakasta izan duten kasu praktikak erakutsiko dira.

- **“Prebenitu daiteke Alzheimerra? Egungo erantzun bat medikuntzak eta gizarteak partekatzen duten desafio bati” (irailak 12)**

Pablo Martínez-Lage neurologoak zuzenduko duen ikastaro honen helburua da alzheimerraren prebentzioaren egungo egoera aztertzea. Gipuzkoan martxan jarri diren azterketen eta proiektuen emaitzek -hala nola Gipuzkoa Alzheimer Proiektua, Deban eginiko azterketa epidemiologikoa, GOIZ-BEASAIN narriadura kognitiboaren detekzio goiztiarrerako programa...- agerian utzi dute euskal herritarren interes bizia beren garun osasuna eta arriskuak ezagutzeko eta gaixotasunaren prebentzioaren ikerketari ekarpen eskuzabal, arduratsu eta solidarioa egiteko. Ikastaroak aurre egin nahi dio alzheimerrak erremediorik gabeko fenomeno gisa duen irudi etsiari. Dagoeneko metatu den ezagutzak eta gaur egun martxan dauden ikerketek etorkizun itxaropentsua iragartzen dute, baina beharrezkoa da azterketa gehiago eskala handian egitea, biztanleria lagin askotarikoetan eta era askotako esku hartzeen bidez.

Martxoaren 29an, programak argitaratu eta matrikula epea zabalduko da. Maiatzaren 31 bitartean matrikulazioaren kostuan beherapena izango da.